

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

232/2026 Foru Agindua, uztailaren 23koa. Ezartzea berehala aplikatu daitezen salbuespenezko mugak eta debekuak zirkulatzeko, sartzeko eta sua erabiltzeko eta mendiko zenbait jarduera egiteko, mendietan eta haien 400 metroko inguruan, oso maila altuko edo muturreko baso sutearen arriskua aurreikusten baita

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru araubide horren eguneratze orokorra, hala denean, Konstituzioaren eta autonomia estatutuen eremuan burutuko da.

Konstituzio agindu hori garatzeko, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua- ren arabera Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du mendi basoak, oihan erabilera eta zerbitzuak, eta, abelbide eta larreak gaietan, Konstituzioaren 1149.1.23 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Eskumenen barne banaketari dagokionez, Autonomia Elkarrekin Osorako Erakundeek eta bertako Kondeak Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeek Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.9) artikulua ezartzen denaren arabera, foru lurraldeek daukate mendiak, oihan ustiaketa eta zerbitzuak, abereentzako bideak eta alaguneak gaietan eskumena, Autonomia Estatutuaren 10.8 atalak dioenez; eta baita oihan zaintza eta nekazaritza eta oihan lurrei bere onean eustea eta hobetzekoa ere.

Eskumen oinarri horiek ezarrita, baso suteen arriskua prebenitzeko eta haren aurrean defen- datzeko plangintzaren arau esparruak ezartzen du urteko prebentzio, zaintza eta itzaltze planak egin eta onetsi behar direla. Plan horiek urte osoan zehar etengabe aplikatuko dira, eta arrisku maileri lotutako erabilerak, debekuak eta mugak arautuko dira, barnean hartuta, besteak beste, baso pistetan ibilgailu motordunen zirkulazioa debekatzea edo mugatzea, eta suteak zaindu, itzali eta kudeatzeaz kanpoko pertsonak sartzea, bai eta operatiboak areagotzea justifikatzen duten baldintzak zehaztea ere.

Hala onetsi da 312/2026 Erabakia, maiatzaren 26koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, Arabako Lurralde Historikoan baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko 2026ko urteko planari. Plan honen helburu nagusia da baso suteen arloko urteko kudeaketa tresna izatea, preben- tzioaren, zaintzaren eta itzaltzearen ikuspegi integral batetik.

Plan hori Mendiei buruzko 43/2003 Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eta abuztuaren 26ko 716/2025 Errege Dekretuak onetsitako jarraibide eta irizpide erkideekin bat etorritik egin da, eta, nolana ere, 48. artikulua 6. apartatura igortzen da. Horrek honako hau xedatzen du:

«Meteorologiako Estatu Agentziaren edo, hala badagokio, zerbitzu hori duten autonomia erkidegoen kasuan, dagokion organo autonomikoaren informazio meteorologikoaren arabera lurralde eremu jakin batean oso maila handiko edo muturreko sute arriskua aurreikus daite- keenean, autonomia erkidegoek berehala aplikatu beharko dituzte baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko planetan ezarritako zirkulazio eta sarbide debekuak eta mugak, eta, nolana ere, honako hauek:

a) Sua piztea espazio ireki guztietan.

b) Aldi baterako etetea sastrakak, larre iraunkorrak, inausketa hondarrak eta baso hondarrak erretzeko emandako baimen guztiak, arriskuak dirauen bitartean.

c) Sua piztea errepide sareko atseden lekuetan, jolas guneeetan edo kanpatze guneeetan, horretarako prestatutako guneeetan barne.

d) Makinak eta ekipoak erabiltzea mendietan eta haien 400 metroko inguruan dauden landa eremuetan, baldin eta haien funtzionamenduak deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragiten baditu, salbu eta administrazio autonomikoko organo eskudunak berariaz baimendu badu haiek erabiltzea edo suteak itzaltzeko beharrezkoak badira.

e) Material piroteknikoa sartzeta eta erabiltzea.

f) Konbustioan dauden objektuak zein sutea sor dezakeen edozein material botatzea edo botata uztea.

Gainera, 48. artikuluko 7. apartatuak onesten du baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko administrazio ebazpen bat berehala bete behar dela sinatzen denetik, hargatik eragotzi gabe gerora ofizialki argitaratzea, eta berehala zabalduko dela beste bitarteko instituzional batzuen bidez, ukitutako herritarrek oro har horren berri izango dutela bermatzeko.

Bestalde, abuztuaren 26ko 716/2025 Errege Dekretuak, baso suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko planen jarraibide eta irizpide komunak onesten dituenak, 48.6 artikuluko debeku tasatuen gutxieneko multzo bera jasotzen du 15. artikuluan, bai eta bete beharra ere, urteko planean berariaz sartu ala ez, lege agindu lotesle gisa jarduten baitu zuzenean mendia eta segurtasun kolektiboa babesteko premiazko administrazio jarduketarako.

2026ko uztailaren 23an, EUSKALMETek honako abisua eman du: Arabako Lurralde Historikorako, eta orduko FWI (Fire Weather Index) indizearen arabera, oso maila altuko edo muturreko baso sutearen arriskua aurreikusten da 2026ko uztailaren 23ko 14:00etatik 2026ko uztailaren 24ko 20:00ra bitartean, tenperatura, haizea, lehortasuna edo bestela inguruabarrak batera gertatzean, sute eta hedapen arriskua nabarmen handitzen baita, eta berehalako neurriak hartu behar dira txinpartak, sua edo deskarga elektrikoak sortzen dituzten jarduerak mugatzeko eta baso ingurunearen zirkulazioa eta sarbidea murrizteko.

2026rako indarrean dagoen urteko planak ez ditu berariaz jasotzen Mendiei buruzko Legearen 48.6 artikuluko debekuak (eta estatuko gidallerroetan duten korrelazioa). Beraz, arau hierarkiaren printzipioa, oinarritzko legearen zuzeneko eraginkortasuna eta egoera horietarako eskatzen den berehalako betearazpena kontuan hartuta, bidezkoa da ebazpen hau ematea, Arabako Lurralde Historikoan aipatutako denbora eremuan aplikatzea agintzeko, hargatik eragotzi gabe ondoren ofizialki argitaratzea eta tokiko agintariei berehala jakinarazteko eta herritarrei informazioa emateko betebeharrak betetzea.

Diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren hamargarren xedapenak (Arabako Foru Aldundiko sailak 2023-2027 legegintzaldirako zehazten dituenak) eta Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.10 artikulua esleitutako eskumenen arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deklaratzea ezen 2026ko uztailaren 23an eta 24an, 14:00etatik 20:00 bitartean, Arabako Lurralde Historikoan maila oso altuko edo muturreko baso sutearen arrisku egoera dagoela, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48.6 artikuluen ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe beste ebazpen baten bidez luzatzea, aldatzea edo lehenago kentzea, arriskuaren bilakaeraren arabera, eta, ondorioz, ebazpen honetan aurreikusitako debekuak berehala aplikatu behar dira.

Bigarrena. Debekatuta dago Arabako Lurralde Historikoko espazio ireki guztietan sua piztea lehenengo apartatuan adierazitako denbora eremuan, xedea edozein dela ere (aisialdikoa, etxekoa, nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, basokoa, ehizakoa edo beste edozein motatakoa). Era berean, debekatuta dago, izaera mugatzailerik gabe, suak, barbakoak, erregailuak, kanpoko suziriak, sua

erabiltzea landan janaria prestatzeko, eta beste edozein sugar mota edo aire zabaleko konbustioa. Suaren erabilera debekuak barne hartzen ditu, nahiz eta urteko foru planak berariaz arautzen ez dituen, finka pribatuak eta jolas eremuak edo espazioak.

Hirugarrena. Aldi baterako etenda geratzen dira, deklaraturako arriskuak irauten duen bitartean, uztondoak, larre iraunkorrak, inausketa hondarrak eta baso hondarrak erretzeko emandako baimen guztiak, baimen bakoitzeko ezeztatze edo etete egintza indibidualaren beharrik gabe. Etendura hori kontrolaturako edo baimendutako edozein erretzera hedatzen da, hargatik eragotzi gabe, arrisku aldia amaitutakoan, eraginkortasuna berriz hastea jatorrizko baimenaren baldintzetan, baimen hori beste arrazoi batzuegatik iraungi ez bada.

Laugarrena. Debekatuta dago sua piztea errepide sareko atsedenguneetan eta jolas eta kanpaldi guneetan, horretarako prestatutako eremuak barne, foru agindu honen lurralde eta denbora eremuaren barruan.

Bosgarrena. Debekatuta dago makinak eta ekipoak erabiltzea mendietan eta mendien 400 metroko inguruetan kokaturako landa eremuetan, baldin eta haien funtzionamenduak deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak sortzen baditu. Besteak beste, bulldozerra, atzerako hondeamakinak, motonibelagailuak, skidderrak, baso prozesadoreak, sasi garbitzeko makinak, uza makinak, paketatzeko makinak, xehatzeko makinak edo antzeko beste edozein ekipamendu, ebakitzeko ekipoak, sastrakak kentzekoak, soldatzekoak, erradialak, motozerrak, motosasi garbigailuak, txinpartak jaurtitzeko makinak, ekipo sortzaileak, marruskaduraz edo inpaktuz su hartzeko arriskua duten lanak eta antzeko beste edozein makina daude, ebazpen berezi arrazoitu bidez berariaz erabiltzea baimentzen direnak edo suteak itzaltzeko beharrezkoak direnak izan ezik.

Seigarrena. Debekatuta dago Arabako Lurralde Historikoan material piroteknikoa sartzea eta erabiltzea adierazitako lehen apartatuan adierazitako denbora tartean, petardoak, suziriak, bateriak, bengalak, sugar edo konbustiozko seinaleztapen artifizioak eta beste edozein gailu pirotekniko edo antzekoak barne, espazio pribatuetan zein publikoetan erabiltzekoak badira ere.

Zazpigarrena. Debekatuta dago erretzen ari diren objektuak edo sutea sor dezakeen edozein motatako materiala botatzea edo uztea, honako hauek barne: zigarrokinak, pospoloak, txingarrak, errauts beroak, ikatzak, goritasun hondakinak, bai eta beste edozein material edo hondakin ere, baldin eta, tenperatura, errektuntza ezkutua edo su hartzeko ahalmena dela-eta, sua eragin badezake bai ibilgailuetatik, bai oinez joanda, bai edozein instalazio edo igarogunetatik.

Zortzigarrena. Foru agindu honek onesten denetik izango ditu ondorioak, nahiz eta gero ALHAOn berehala argitaratu beharko den. Foru agindu hau berehala zabaldu beharko da beste bitarteko instituzional batzuen bidez, ezagutza orokorra bermatzeko, gutxienez webgune instituzionala, sare ofizialak eta komunikabideetako abisuak barne.

Bederatzigarrena. Foru agindu hau honako hauei jakinaraztea: Arabako toki erakundeei, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuari, Natura Ingurunearen Zuzendaritzari, Bomberos Forales de Álava-Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoari, Vitoria-Gasteizko suhiltzaileei, Ertzaintzari, Miñoiei, basozainei, UAGari, nekazari eta abeltzainen elkarteei, basoen zaintzaren aldeko elkarteei, Arabako ehiza barrutien elkarteei, nakazaritza kooperatibei eta parke naturale-tako zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztzari. Halaber, eskatzen zaie ezarritako gomendioak eta debekuak herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzeko, eta, bereziki, agintaritzaren agenteei eta toki erakundeetako agintariei agintzen zaie haiek betetzen direla zaintzeko.

Hamargarrena. Foru Agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru

diputatuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 23a

Nekazaritzako foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA